

AITA EMILIANO EUSKAL IDAZLEA

Oroimenean gordeta ditut haurtzaroko gauza asko. Horietako bat aipatuz hasi nahi nuke lantxo hau.

Hamaika urte nituela, Zornotzako karmeldarren ikastetxean sartu nintzen. Gure zuzendaria Aita Fidel zen, Fidel Sarriegi azkoitiarra. Noizbehinka bere gelara dei egiten zigun, aholku onak emateko eta pozik bizi ote ginen galdetzeko. Ni larri nengoen... Erdararik ere, *bai* eta *ez* baino asko gehiagorik, ez nekien. Ongi hartu ninduen eta, azkenerantz, akuarelaz-edo pintatzen ari zen irudi polit bat erakutsi zidan. Andre Maria ageri zen eta haren oinetan ermita bat, urrunago baserri bat, belar-metak, zuhaitzak, menditxoak eta ikuspegi berdea. Geroago, Liburu baten portada bihurturik ikusi genuen pintura hura. *Andre Mari Euskalerriko Mendietan* zen liburu hori, Aita Emilianok idatzia.

Urte batzuk igaro ondoren, Markinan aurkitu genuen profesora egindako ikasleen zuzendari. Ikasturtean zehar grekoa eta musika ematen zizkigun, baina batez ere gure formazio espiritualaz arduratzen zen. Bere lanak uzten zizkion astiuneak, musika egiteko eta euskaraz idazteko erabiltzen zituen. Gelako isiltasunean, zigarroaren ke artean, giro egokia eratzen zuen inspirazioari deika.

Nik, apaiz egin berri Larrean hiru bat hilabete egin ondoren Markinara bidali nindutenean, berriro ere hemen aurkitu nuen.

1966ko udazkena zen. Urtebete elkarrekin bizi izan ginen komunitateko kide. Gero, tamalez, ez nuen hiltzen ikusi. Madrilen izan nintzen sei hilabeteetan eta tarte horretan hil zen ustekabean eta nahiko gazterik.

Orain haren euskal lanei begira nago. Aita Emilianok utzi ziguna ez da gauza urria izan. Isila zen eta ez zuen, beste askok bezala, egindako lanaren berri lau haizetara ematen. Bera joan zenean, hor utzi zigun bere emaitza oparoa. Musikakoa eta euskarazkoa. Asko saiatu zen itzulpen-lanean, baina honetaz Patxi Uribarrenek, Bizkaiko Foru Aldundiko itzultzaileak, jardungo du. Niri, berriz, Aita Emiliano euskal idazle zen aldetik aztertzeke eskatu didate. Hala egingo dut, bide batez, Markinako Karmenek gure fraide jatorrari dion zorra nolabait kitatu nahirik.

Euskaraz asmatu eta idatzitakoen artean, hau da, itzulpenak ez diren artean, hiru hauek ditugu:

Andre Mari Euskalerriko Mendietan (Bilbo, 1951, "Echenagusia" inprimategian).

Andre Mari Gaztediaren Eskuetan (Ediciones El Carmen, Gasteiz, 1954).


Euskal Musikalari Bikaiñak (Kuliska Sorta. Itxaropena argitaldaria - Zarauz, 1967).

Andre Mari Gaztediaren Eskuetan liburuak gazte euskaldunei Andre Mariaren misterioak irakasteko xedez idatzia dirudi. Liburu pedagogikoa, beraz, galdera-erantzunez cratua. Ez da, azal eta mami, oso-osoan euskaraz asmatu eta biribildua. Erdarazko ereduak izan zituen aurrean, autoreak berak aitortzen digunez. Erdarazko bi liburu aipatzen dizkigu: "La Virgen Santísima al alcance de la juventud" bata, eta "Reina y Madre" bestea. Hala ere, inspirazioa baino zerbait gehiago hor aurkitu arren, ezin daiteke esan itzulpena denik.

Hari buruzko iritziak

Argitaratutako bere liburuei buruzko oharrek, laudorioak, egunkari eta aldizkari zatiak, iritziak... bere karpeta batean gordeak utzi zituen. Hala ere, erosoago zaigulako, Santi Onaindiak *Euskal Literatura V* liburukian bildurikotik egingo ditut ondorengo aipamenak:

Andre Mari Euskalerriko Mendietan liburuaz honela dio A. Ibiñabeitiak:




"Euskalerriko mendaitzetan berreiatuta diran, bai bizi, euskaldun on-utsak ematen dien ats beroarekin, Andre Mari aipatuenak, kine-zapian bezela, liburuaren orrialdeak zear agertzen zaizkigu. Aipatuenak diot, amaikatxo apalagoak, baso itzal ta izkutueta gelditu diralako oroldioz ta basa-liliz inguraturik. Ezinezkoa zitekean gainera Birjiña guziak aipatzea, Andre-Mari-enkiklopedi bat antola bearko zuen ontarako. Arantzazu-tik asi, eta Lurde'n buka, orra Andra-Mari'z mamitutako Pan-Euzkadi...!" (*Euzko-Gogoa*, 1952, 3-4, 60 orr.).

Andre Mari Gaztediaren Eskuetan liburuaz hona zer dioen A. Ibiñabeitia berak:

"Geiegikeri gabe aitortu dezakegu Aita Emilianoren liburu okitua gaurdaño Andre Mari'z idatzi dan bikaiñena dala gure artean. Ikasbide eraz antolatu digu, galde-erantzuka. Era ortara moldaturiko liburuak nekagarri gertatu oi dira geienetan, elkar-izketaren igi ta eragiñik ezpaitute. Iasangarri dira ordea, irakurlearen gogoa iakituriz alatzeko egokienak diranean. Eta liburu au, ain zuzen, Andre Mari'gazko ikasgarri ta iakingarri guztien lore-txorta bikaiñena duzu izan ere. Amairu ikasgaietan legezareko Andre Mari'gazko igarkizun eta antzirudietatik asita, Iainko-Amaren Iasokunderaiñoko danak zeatz meatz azaltzen dizkigu idazle argiak. Azalkizunok Eliz-amaren irakatsi zindoenetan eraiki ditu Eliz-guraso ta Irakasleen aitor iatorrenez sendoturik. Heresi-zulo beltzerako lerrabiderik ez du emen arkituko kristau irakurleak; bai, ordea, zerubiderik zuzenena Andre Mari'ren onoiñen iarraigarritz ariztatua. Beraz, dotriñaz sendo dagerkigu Aita Emiliano" (*Euzko-Gogoa*, 1954, 208 orr.).

Luis Mitxelena *Andre Mari Gaztediaren Eskuetan* liburuaz:

"Auxe esan genezake gaiari buruz: bizi egoki azaldu duela Aita Emilianok berea. Ia 300 orrialdeko liburu onek gai aberatsa du, ongi tajutua eta zeatz eta garbi



aditzera emana. Izkera berriz ederra ta ugaria. Eztabil egillea Txirrita-patroiarekin: euskera landua du, jaso. Baiña ez geiegi, edozein irakurlentzat adigaitz izateko adiñakoa ez, alegia. Ezur-muiñetan sartua dauka gure hizkuntzaren izaera eta joskera eta lasai dabil orri eskerrak erdi-mailla atsegin batean: gora-naiean, baiña ez goregi; erraz-zurrean, baiña ez narrasegi" (*Egan*, 1-2, 55 orr.).

Haren lehen liburuaren aurkezpen-hitzak Manuel Lekuonarenak dira. Hor, besteak beste, Frai Bartolome eta karmeldar idazleak aipatzen ditu oiartzuar jakintsuak eta ia bi hiztara laburtzen liburu horretan aurkitu duen estiloa. Honela dio:

"*Andre Mari Euskalerriko Mendietan* liburuan, liburuaren estiloan, idazkeran, bi gauza arkituko dituzu, besteak beste. (Ez dago danak aipatzerik. Eta bi naikoak dira. Bearren-bearrenetakoak diralarik batez ere): ARGITASUNA TA GOZOA".

Egileari berari egindako gutun batean honela diotso:

"Nere iritzia. Oso euskera ederrean egiña dago dana. Oparoa benetan. Biribilla. Parrafoak oraindik apur bat laburrago izan zitezkean. Eta orduan argiagoak izango ziran. 'Argiagoak' diot; 'argi' len ere argi daude".

Zerbait esatekotan, erlatiboak gehiegitxo erabiltzea egozten dio. Iraganean ari denean, erlatiboen ordeztarizioak erabiltzea proposatzen dio edota esaldiak bitan zatitzea. Eta azkenik, honela dio:

"Orra nere iritzia. Sen aundiz egiña dagola lan guztia. Euskal-sen aundiaz".

Garai batean _eta oraindik ere bai, agian_ euskaldun bakoitzarengan gramatikari bat zegoen-eta, literaturaren aldea baino zorrotzago epaitzen zen hizkuntzaren aldea; hori ageri-agerian dago aurreko kritiketari eta batez ere Leon Arangurenak Alzotik igorritako honetan:

“Ni, ikusten dekanez, ‘critico’ zorrotz xamarra nauk: toki askotan ikutu diat ire lantxo, naizta aldakuntza aundirik sartu ez. Ona emen nire iritzia: ‘hipérbole’-zaleegi azaltzen aiz ta bear litzaken baño ‘calificativo’ gehiago ezartzen dizkiok gauza bat eta berberari: ‘ongi bai ongi’, ‘gero ta gero’, ‘bero sutsua’, ‘apain baño apañago’, ‘jantzi-jantzi eginda’, ‘polit eder galanta’ ta abar...

‘Onomatopéyico’ itzak geiegi erabiltzen dituk: ‘plisti-plasta’, ‘pol-pol’, ‘braust’ ta abar. (El abuso de esas palabras, creo, rebajan y hacen un tanto plebeyo el estilo).

‘Bezin’, ‘bezain’, ‘baxen’... calificativoak dituk beti ta ‘beste’, ‘besteko’, ‘aña’, ‘añako’ ta abar cuantitativoak; ‘beste’ hori bizkaieraz uste diat erabiltzen dala gehiago ta ‘aña’ gipuzkeraz. Dana dala, ire lantxo ori oso ederki zegok, nere ustez, geienetan behintzat. Eta nik zeozer zuzendu edo aldatu badiat, gaizki zegolako baño gehiago, bi edo iruen iritzia beti berdiña ateratzen zalla dalako, izan dek noski. Zeinbat buru, ainbat aburu”.

Jose Egino Treku Azkoitiko seme eta Santanderko gotzainak Markinako nagusiari idatzitako gutun bat gordetzen da. Gaztelaniaz idatzia; A. Emilianoren liburuaz ongi mintzo da. Berak ere, musikari eta olerkari bere burua ikusiz, kantua egin zion euskaraz bere herrian dagoen Urrategiko Amari eta liburu honen egileari igorri esker onez.

Luma jantzia

Aita Emilianok zentzuz eta ganoraz idazten du, baina ezer azpimarratzekotan, bihotzaren eragina datorkiola lumara esango nuke. Maite duen gaian bete-betean murgiltzen da eta hizkuntza lantzea ez du bigarren mailako zeregintzat jotzen; gogo-gogoan duen xedea da euskara albait txukunen erabiltzea. Artista plastiko batek bezala, hemen pintzelkada bat, han beste bat, poliki-poliki eta adiguriz, bere koadro ederra osatzen ari denaren itxura hartzen diot.

Koaderno batzuk utzi zizkigun, gogoko zituen esapide eta esamolde asko hiltzen dituena. Ahozko euskaratik nahiz idatzizkotik bilduak, ezbairik gabe. Gero, maiz erabiliko zituen *halakoak bere idazlanetan, harira zetozkeenean. Dena dela*, idazle ereduak ere izango zituen eta, horien artean, Txomin Agirrerren joerak nahiko garbi nabari dira. Badakigu, Evaristo Bustinza "Kirikiño" belaunaldi hartako guztiek miresten zutena, baina gure eskoriatzarraren gaiak beste era batekoak ziren; gai erlijiosoak eta serioak; bestalde, "Kirikiño"k bizkaieraren barruan jardun zuen beti; A. Emilianok, ordea, berez bizkaieraren ingurunekoa izan arren, gipuzkera garbian idazten zuen. Aita Manzisidor jesulaguna ere maite zuela dirudi. Honek idatzitako liburu erlijiosoak esku-eskura izaten zituen eta jantokian astean behin egiten genuen euskarazko irakurketan haren libururen bat erabiltzea ia ohikoa zen. *Jesukristoren bizitza* eta *Gure Patroi Aundia* han irakurri genituen. Azken liburu honek Loiolaren deskripzio bikaina du, A. Emilianoren *Andre Mari Euskalerriko Mendietan* liburuan maiz aurkitzen ditugun deskripzio polit eta bete-betekoaren antzekoa. Bere garaiko edota pixka bat lehenagoko idazleen eragina nabari da A. Emilianoren idazkeran. Ez dirudi idazle klasikoak hain maite zituenik. Ez dugu haien aipamenik aurkitu haren idazlanetan, ezta haien eraginik sumatu ere. Eta hala nahi izanez gero, ez zuen asko ibili beharrik izango, etxean bertan zeuzkan-eta, bai Frai Bartolome, Mogel, Añibarro, Astarloa, bai Agirre Asteasuko, Mendiburu, Ubillos, Gerricko eta abar.

Andre Mariaren irudi eta deiturak

Andre Mariaren irudi eta deitura hauek istorio politez inguratuak dira. Haien agerpen eta hasierak iraganeko garai zaharretan galtzen zaizkigu; ahoz-ahozko ele zaharretan iritsi dira gureganaino. Baina bat irakurriz gero, ia ez dago gainerakoak irakurri beharrik. Antz-antzekoak dira: Andre Maria haur, arizain edota pertsona xume eta apalei agertzen zaie gehienetan,

mezuren bat dakarrela: eliza edo santutegi bat nahi lukeela toki hartan esaten die... Lekukoek, haurrek, artzainek... albistea zabaltzean, era askotako erantzunak datoz; eliz agintari eta gainerakoak sinesgogor agertzen dira; ez dute sinetsi nahi... Agian, lekukoak xumeak, apalak, ezjakinak direlako? Zerua argiago mintzatu arte, fidagaitz izatea gomendatzen da halakoe-tan. Begitazio hutsak izan litezkeelako eta sineskeria eta sorginkerietan erortzeko arriskua dagokeelako. Hala ere, gertaera harrigarriak tarteko, eliza eraikitzeari ekiten diote azkenean. Baina Andre Mariak eskaturiko tokian barik, ustez, toki zabala-go eta egokiagoan. Hor zenbait gauza mirengarri gertatzen dira berriro ere: toki hartan egunez bilduriko materialak, gauzez norbaitek eramanda-edo, goitiko agerkundean seinalaturiko lekuan agertzen direla... Hau ia kasu guztietan errepikatzen dena da; ez liburu honetan datozen Andre Mariaren deitura desberdinetan soilik, baita beste zenbait kasutan ere. Hurbilagotik ezagutzen duguna delako, Markina aldeko bat aipatuko dugu: Urregaraiko Santa Eufemiarena. Orain dela 30 bat urte Markinako aguretxo bati, Joakim Makardari, entzun genion kontatzen berak aurretikoei entzuna. Santa baten ermita izan arren, Andre Mariaren deituretako irudien istorio berbera da. Esan ere, Makarda zaharrak "Santa Eujeniko Ama Birjiña" esaten zion. Ermita egitekotan zirela, Urregarai eta Bedartzandi mendi bitartean dagoen zelaian egitea erabaki zuten eta hantxe bildu harri eta gainerako materialak. Baina egunez egindakoa gauzez desegina eta Urregarai tontorrera eramana ikusi omen zuten biharamunean; ez zuten etsi, ordea, eta zelaira ekarri zuten berriro. Baita "goikoek" itzuli ere erraz tontorreko harkaitz artera. Goikoaren aurka ez dagoela zereginik eta, bertan eraiki zuten ermitatxoa, aurrez seinalaturiko lekuan.

Ziortzako Andre Mariaren elizaren sorreraz ere istorio politak kontatzen dira, baina ez dago harri-garraiorik, ezta lekua dela-eta tirabirarik ere. Gerra auzoan zegoen Santa Luzia elizan jartzen du elezaharrak Ziortzako Andre Maria Elizaren jatorria. Gerrickako Santa Luzia hori omen zen Bizkaiko elizarik za-

harrenetakoa. Hango familiek, inguru osoan, kanpoaldetik, aska antzera harlanduz egindako hilobiak zituzten.

Ahoz-ahozko iturriek diotenez, abuztuaren 15a, Andre Mari eguna, handikiro ospatzen zen urtero eliza hartan. 968ko urtea zen. Urte horretan ere jendetza handia bildu omen zen, eliza eta inguruak kristauz betetzeraino. Mezatan zirela, guztien bistan, hegada bizi-bizian arrano bat jaitsi eta harrizko hilobi haietako batetik atzapar artean burezur bat harturik, hegatan omen zen pixka batean eta zeaumriak izeneko zuhaixkaz beteriko toki batera bota omen zuen. Toki honi, gerora, Zeaumritza edo Ziortza izena eman zioten. Urteak joan urteak etorri, gertaera miragarri horrengatik-edo, eliza eder bat eraiki zuten hemen, Santa Luziakoa ermita bezala utzirik.

Gertaera hartaz gerotik, Ziortzako armarrarian arrano bat ageri da, bere atzaparretan burezur bat duela.

Andre Mariaren deiturretako irudien eta debozioen sorreran, historiako agiririk eza, ahoz-ahoko tradizioetik datozen kontakizunez bete da. Poliki eta egoki kontatzen dira liburu honetan. Baina horiek, gehienetan, behin eta berriro errepikatzen diren klixe antzekoak dira. Goiko lerroetan Markina inguruko beste bi kontakizun eman ditugu, eman daitezkeen beste askoren adibidetzat. Dena dela, gure idazle honengan azpimarratu nahi genukeena ez da istorio hauek kontatzean duen maisutasuna, lekuak, herriak, santutegiak... deskribatzean agertzen duen egokitasuna baizik.

Tokien eta irudien deskripzioak

Haren lehenengo liburuan herri, mendi, haranak eta abar oso egoki adieraziak, hitzezko kolorez pintatuak bezala, agertzen zaizkigu. Hori zaigu gogokoen eta ederren haren idazkeran.

Dioguna agerian jartzearren, bi testu-atal emango ditugu. Liburuan zehar, edozein orrialdetan datoz horrelako deskrip-

zioak, baina Arrateko Amari eta Itziarko Amari dagozkien orrialdeetatik hartuak ditut ondorengo hauek:



“Eibar. Menditarte bien erdian, ibarrondo sakon luze biurri baten estu-estu eginda, buru-belarri lan da lan, Gipuzkoan danik uri eder nagusitxoenetakoa... Batez ere, aberatsa ta edozertan oso aurreratua.

Bere alderdi bietako aldapa latz pikuetan zear, an or emenka, basetxe txuri banakak... Labain eginda noiz bea

joko ote-dauden begitanduko zaizkigu, bear bada...
Baña, ez. Beren soro landuen erdian, tinko bai tinko,
mendi-lurrari ongi josita daude.

*Kale luzera osoan zear, atean-atean lantegia. An eta
emen, burni otsa, eraigi¹ ta txirringa zarata. Hamaika ara-
zo ta eginbearren ardura, ara ta ona etengabeko joan-
etorria...*

Erri gaintxoan, geltokia. Burnibide zear goruntz eta
beruntz igaro oi diran tren guztiak antxe osoro ustuko
dira... Ustu orduko, bai berriz bete ere.

Jatorriz, gañera, erri oso elizkoia... Astegunetan lan
bezelaxe, jai egunak alaikiro jai-egiten dakiana. Erdian
samar, zaindari gisan, Eliz Nagusi ederra. Ertz baten, be-
rriz, begi-begiko zaion Karmeldarren Lekaidetxe ta
Elizatzoa... Ta, an, gorenengo mendi-mutur baten gañe-
an, eibartarren fede sendo ta zindoaren ezaugarri bailitz,
arrizko gurutz aundi bat, gau ta egun, beti, erriari begira,
here besoak zabal-zabalik, mendean dauzkan kaleak eta
baserriak babestu nairik bezela. Gehiago oraindik: pitin
bat goraxeago, eibartarren Zaindari ta Erregin koroiatua
dan Arrateko Ama txit maitearen Baseliz txukun ospe-
tsua. Ementxe, bai, argi ta garbi ager oi dala eibartar ja-
tor diranen oro biotz barneko fedea!... Ta euskaldun se-
me guztienal...

Arrate gain ingurua Euskalerriko mendi bazterrik atse-
gingarrietakoa da... Bai gorputzarentzat, bai, batez ere,
animarentzat. Aipatu degun gurutz ondotik begira baño
eztaukagu... Euskalerriko mendi gallurrik arroenak, alka-
rri eskuz elduta bata bestearen ondoan jarri bai-lira, itzu-
linguru guztian erreskadan dagerzkigu: Urko, Oitz,
Gorbea; Udalaiz, Anboto, Arlaban; aloña, Aitzgorri;

¹ Motor

Aralar; Ernio, Andutz, Izarraitz... eta beste ainbat eta ainbat mendi ta mendixka!...

Arrateko Amaren Irudia, urregorritz jantziriko kutxatxo baten gañean exerita dagerkigu, bere altzoan, pitin bat ezker alderuntz, Jesus Aurtxoa, au ere exerita, daukala. Ama Birjiñak bere eskuian sagar bat darakusgu. Semeak, ordea, ezkerrean liburu bat dauka, Amak ere eusten laguntzen diola.

Lenagotan, biak, Ama Semeak irudi bat egiten omen zuten. Baña, zoritxarrez, noizbait, orduan oitura au baitzan, oialez egokiago jantzi al izateko-edo, Aurtxoa Amagandik zatarki ebakita dago, ta ol puzketa baten birtartez, zertxobait aurreragotuta.

Buruan daraman koroia ere zurezkoa da ta gorritz margotua, buru gañetik sorbaldetaraño datorkion soñekoari koroiak berak eusten diola.

Irudi au oso txikia da; koroia ta guzti, ezpaideu ematen neurkin² erdi bateko luzera baizik”.

Ikus dezagun, orain, Itziarko Amari dagokion atalean nola egiten duen inguru haien deskripzioa:

“Itziar erri koxkorra, Gipuzkoa osoan diranetan antxiñenetakoa da, noski; noiztikoa dan azaltzeko, ez urterik, ez gizaldirik ziur ezin genezake aipatu baña.

Debatik Donostira bidean sei-zazpi kilometrora, tontor-gaintxo baten, etxe txuri mordoxka. Goraxeago, gaztelu zar aundi bat dirudian arrizko Eliz ederra. Gañerako erria, inguruetan, an eta emen, urruntxuraño zabaldua agiri diran, ainbat baserri-etxe txuri politak egiten dute.

² Metro

Andik, bai, toki ederrak ikusten dirala...! Alde batetik, Andutz mendi-gallurra: bestetik Izarraitz buru-soilla: aurreko aldetik, an bean, itxaso urdin zabala: ta beste amaikatxo mendi-muño, ibar, zelai, zugazti, soro landu ta abar... Eguraldi garbiz, alare, Prantzia alderañoeko itxas bazterrak-eta.

Eritxo au, onen txikia zala, gaur dan baño ere txikiagoa, noski, izen oso aundiko erria zan antxiñako gizaldi aietan. Deba izan aurretik, bertan egin oi-baitziran Gipuzkoako Batzar Nagusiak.

Baña, onen lirain jantzita dagerkigun muño zoragarri au, aunditasun guzti oiekaitik baño askoz ospetsuago da, Jainkoaren Ama Birjiña berberak, bere maitasun eta errukitasun-aulkitzat aukeratua dalako, ta ementxe egin nai izan zualako, gaur Euskalernian ezagun diran bere agerpenetan lebizikoenetarikoa, guztiz entzutetsu ta xamurenetakoa".

Testuei gain-begirada

Goraxeago adierazi dugunez, idazle ereduak bazituen Aita Emilianok; hauen artean, Txomin Agirre eta I. M. Manzisidor.

Konpara ditzagun Txomin Agirreren Arranondo, Aita Emilianoren Eibar eta Manzisidorren Loiola:

"Errekarte ta mendi egal zoko katean dindilizka dagan erri koskor bat da gure Arranondo. Uretan daukaz oñak; aldatz andiak iri edo kalietan; kale batetik bestera, zearretarako arri malla pendiz urteakaz leunduak; etxeak bata bestien gañean, atzeko aldea lurpean sarturik eta aurrekoen tellatutik arpegia erakusten; iñok usteko ez-leukean aña gizadi etxe bakotxean, berrogetamarretik gora beti, umeak geienak; eta leio zulo danetan atorrek eta gonak, alkondarak eta prakak, itxas gizonen jaka ur-

diñak eta oeko zapi zuriak esegita” (TXOMIN AGIRRE, *Kresala*).

“Eibar. Menditarte bien erdian, ibarrondo sakon luze biurri baten estu-estu eginda, buru-belarri lan da lan, Gipuzkoan danik uri eder nagusitxoenetakoa... Batez ere, aberatsa ta edozertan oso aurreratua.

Bere alderdi bietako aldapa latz pikuetan zear, an or emenka, basetxe txuri banakak... Labain eginda noiz bea joko ote-dauden begitanduko zaizkigu, bear bada... Baña, ez. Beren soro landuen erdian, tinko bai tinko, mendi-lurrari ongi josita daude.

Kale luzera osoan zear, atean-atean lantegia. An eta emen, burni otsa, eraigi ta txirringa zarata. Hamaika arazo ta eginbearren ardura, ara ta ona etengabeko joan-etorria...” (AITA EMILIANO, *Andre Mari Euskalerriko Mendietan*).

“Loiola Gipuzkoaren biotz-biotzean dago, mendi ederez inguratutako Iraurgiko ibarrean. Izarraitz alde batean, bere arrizko burusoil aundia ageri zaiola, eta bizkarra gari eta artasoro ederrez, eta baserri txuriz, eta basoz josita. Izazpi aundiaren gerriraño igotzen dira beste aldetik muño eta mendi egal politak, auek ere baserriz eta landez apainduta. Iparrera Erlok eta Arauntzak gordetzen dute; eta ertzeago Ernio mendiak. Egoera Azkoitiko mendiak dauzka babes, Kerexeta basetxe ederrez eta baso ugariz dana beteta.

Urola ibaiak, bere betiko soñuan, etxe ondoa bustitzen dio. Bide zabal egokiak Azkoiti Azpeiti biltzen ditu; ibar erdi-erditik dijoa” (I.M. MANZISIDOR, *Gure Patroi Aundia*).

Maisuki azaltzen dute hirurek norik bere tokia, irakurleari hitzezko pintzelkada finez, zehazki eta egoki begi bistan jarriz.

A. Emilianok izenondo edo adjektibo ugariz janzten ditu bere esaldiak: *ibarrondo sakon luze biurri baten estu-estu eginda* (...). Lerro bat beherago: *aldapa latz pikuetan zear, an or emenka, basetxe txuri banakak*. Izenondo bakarra baino satriago agertzen dira bi eta hiru jarraian.

Txomin Agirrek koadro berdingabeak lortzen ditu, baina horretarako, izenondoak mordoka jarri beharrean, adizlagunak eta aditzondoak, hau da, adberbioak, erabiltzen ditu batez ere; *non, nola* zertzeladak adieraztekoak: *Errekarte ta mendi egal zoko katean dindilizka dagoan erri koskor bat da gure Arranondo*.

I.M. Manzisidorren estiloak badu zerbait aurreko bienetik. Baina ez da A. Emiliano bezain barrokoa eta apain zalea, ezta Txomin Agirre bezain bizia ere. Manzisidorren idazkera erraza, soila, laua da: *Izarruitz alde batean, bere arrizko burusoil aundia ageri zaiola, eta bizkarra gari eta artasoro ederrez, eta baserri txuriz, eta basoz josita*.

Azken gauzatxoak

Haren lanak begiratzean, euskal idazle zen aldetik hartaz iritzia moldatzeko, *Andre Mari Euskalerriko Mendietan* liburua begitandu zaigu egokiena. Izan ere, obra horretan euskara jantzia, txukuna, bihotzetik harakoa, erabiltzeko eta barruak eskatu ahala, deskripzio dotoreak egiteko aukera aurkitu zuen. Haren bigarren liburuan, *Andre Mari Gaztediaren Eskuetan* izenekoan, ez zuen horrelako aukera eta askatasunik izan, ezta *Euskal Musikalari Bikainak* izenekoan ere. Hura, gorago adierazi dugunez, ez da goitik behera euskaraz pentsatu eta biribildutako liburua, gaztelaniazko ereduak aurrean zituela euskaraz moldatua baizik; horrez gainera, pedagogia-liburua da, doktrinaz eta galdera-erantzunez osatua. Horrelako lan batean idazlea gaiaren mende dago eta ezin ditu bere barne-mundua eta dohain literarioak askatasunez adierazi. *Euskal Musikalari*



A. EMILIANO BARANDIARAN

EUSKAL MUSIKALARI BIKAIÑAK



(Gayarre-ren Dobia Errokan-en (M. Benlurek-ek egina))



Bikanak liburuz antzeko zerbat esan behar dugu. Biografia laburrak eman dizkigu hemen. Hauetan zehaztasuna eta argitasuna dira hobesten, irakurlearentzat interesgarri egiteko kontararen haria ongi eraman eta biografiak bizi-bizi agertzeko aukera beti badago ere.

Liburuan argitaratu baino lehen, zatika-zatika *Karmel* aldizkarian idatzi zituen hemengo batzuen biografiak, ez guztienak. Libururako ukitu ugari egin zizkien eta batzuenak oso-osorik idatzi. Jon Etxaidek zenbait euskal idazlez egin zuen liburua, *Hamasei Seme Euskalerriko*, oso gogoko izan zitzaioala dirudi. Hitzaurrean beren-beregi aipatzen du liburu hori eta, musikariek, haren antzekoa egiteko asmoa agertzen. Baina Musikariak 12 dira eta ez 16.

Aurtengo martxoaren 9an mende bat bete da gure idazle eta musikari eskoriatzar jator hau jaio zela eta *Karmel* aldizkariaren irakurleei dei egin nahi nieke haren euskara gozoa eta prosa txukuna dastatzera.

Luis Baraiazarra Txertudi